

Lo egiteko tokiak sai zuria lagunkina delako marka

Lo egiteko toki kolektiboetan biltzea espeziearen izaera taldekoari lotua zaio eta haien ikerketa Espainian dokumentatua izan da, gehien bat. Kopuru aldakorrak dira, (10 sai baino guttiagotik 200 sai arte), eta lekuak, gehienetan, jateko iturri erregular batetik hurbil dira, populazio handiko testuinguruan. Frantzian, ezagunak diren lo egiteko bi toki bakarrak Euskal Herrian dira.

R. Etchegorryk (ONCFS) zuen lo egiteko toki batean ikusi lehen sai elkarretaratzea seinalatu, 1991n, eta gero, 2005eko uztailaren 24an, orduan Saiak-eko kide zen Yann Toutain-ek eta Jean-Bernard Etchebarnek (ONCFS) beste leku bat atzeman zuten, lehenetik 7 km-tara. Urte hartako agorrilaren 14an, **70 sai** kontatu zituzten leku hartan berean: 44 heldu, 22 heldugabe, 3 zehaztugabe eta urteko gazte bat. Saiak elkarteak behaketak segitu zituen ondoko urteetan, eta gero ONCFS-ko eta lekuko elkarte batzuetako kideek parte hartu zuten, «Pirinioetako Sai Zuri Sarearen Koordinazioa» egituraren barnean.

Gaur egun, Ekintza Plan Nazionaleko programan sartzen dira.

Lo egiteko bi tokiak oihan ttipi batzuetan daude eta sai zuriak itzuli orduko, hara joaten dira, otsail hondar-apiril hastapenetik (goizenik seinalatu den etorrera: 2006ko otsailaren 15ean, bigarren lo egiteko lekuan) irail hondarrera. Pausalekuak sai arreekin partekatzen dituzte, haiek kopuru handiagoan izanik. Hegaztiak heltzen direnean lo egiteko toki horietan elkarretaratzen dira, bikotean diren hegaztiak elkar topatzeko edo bikote berrien egiteko lekuak dira; horren seinale dira ikusten diren binakako hegaldia, aireko akrobaziak eta kopulatzeak.

Ugaltzaile ez diren helduak eta heldugabeak ere errezibitzen dituzte, zeinak helduak baino berantago agertzen baitira.



Bi lekuetarik, bigarrenik aurkitu zenak baizik ez du segitzen lo egiteko toki erregular gisa funtzionatzen, lehena fite husten baita udaberri hastapenean. Abandonatua da behin eta berriz gertatu mendiko suek andeatu arbolak erori baitira, eta beraz pausalekuak desagertu, eta jendearen jarduerak saiak tratatzen baitituzte.

Lo egiteko tokietan kontatu hegaztien kopuruak aldatzen dira sasoiaren denboran eta gorenera heldu dira uda erditsutan (uztail hondarra – agorril erditsua).

Lo egiteko bi tokietako kopuruen bilakaera.

1991n, R. Etchegorryk 53 kontaketa egin zituen lo egiteko lehen lekuan, martxoaren 4tik irailaren 4ra. Kopuruak 33 sairen (maiatzaren 31ko arratsaldean) eta 0 sairen artekoak (agorrilaren 5ko goizean) izan ziren.

Ondoko urtean, D. Marguerat-ek segida hartu zuen, **45 sai kontatuz** (12 heldugabe barne), 1992ko ekainaren 10ean. Hori da lehen toki hortan kontatua izan den kopururik handiena. Heldugabeen kopurua azkarki emendatu zen 1998tik goiti.

Heldugabeak apiril erditsutik goiti agertzen ziren eta haien kopurua ttipitzen zen agorrilaren 10etik goiti. 2004an, adibidez, ekainaren 28an eta agorrilaren 8an artean **kontatu saien %75 heldugabeak ziren**. Aldiz, 2013an egin kontaketat, haien kopurua ez zen %30era heldu.

2000ko urteen hastapenean, heldugabeen kopurua emendatu zen, helduen kopuruaren kaltetan, arrazoi ontsa jakinik gabe. Sai gazte horiek Pirinioetako iparraldera gehiago jiten ziren,

menturaz, hegoaldeko hilikitegiak hetsi baitziren, behien entzefalopatia espongi-formea (behi eroen gaitza) izeneko eritasunari lotu neurri sanitarioengatik.

2010eko urteen hastapenetik, kopuruak ez dira aitzineko hamarkadan bezain gora igaten, non 78 sai arte kontatu ahal izan baitziren, eta orain berrogei bat hegazti biltzen dituzte.

Lo egiteko bi tokietako kopuruak ttipitzeko joera dute

Kopuruen ttipitzea hainbat herritan agertu joera orokorrean sartzen da eta espeziearen estatutuaren bilakaera negatiboaren ondorioetarik da.

Euskal Herriko lo egiteko tokiak agertu dira, Espainian markatu hegaztien behaketen ondorioz, sarean funtzionatzen duen Pirinioetako mendebaldeko multzo bateko zati gisa.

Beraz, Pirinioetako bi aldeen arteko balizko trukaketa leku gisa agertzen dira, bai eta iparraldearen berriz kolonizatzeko baliabide gisa, alde hori espeziearen banaketa eremuaren bazterrean baita; ondorioz, lo egiteko toki horien begiratzek garrantzia handia dauka.

Lo egiteko tokietara erregulariki joaten diren hegaztiak eskualdean berean sortuak izan daitezke, baina habia han ez duten hegazti batzuk ere joaten dira, hala nola ugaltzaile ez diren sai heldu batzuk eta helduak ez diren adin anitzetako saiak ere. Aldaketa horien zergatiak, hegaztien jatorria, haien mugimenduak, haien eguneroko jokabidea, lekuari dioten atxikimendua oraino ezezagunak dira.

Satelite bidezko telemetria egin segimendua ezinbesteko urrats gisa agertzen da orain, sai zuriek eremua nola erabiltzen duten hobeki ikertzeko (bizi eremuen kartografia, elikatzeko lekuen ezagutzea, arriskuak dituzten eskualdeen zehaztea) baina baita ere, eta bereziki mendigunearen parte honetan, lo egiteko tokiek espeziearen jokabide sozialean eta dinamikan duten eginkizunaren ulertzeko. Satelite bidezko segimendu teknikek migrazioari buruzko emaitza interesgarriak eman dituzte, jadanik; Euskal Herriko sai zurien migrazio bideak eta negua pasatzeko lekuak —bereziki dokumentatuak ez direnak— zehaztea ahalbidetu beharko lukete. Gauzatzen ari den Ekintza Plan Nazionalak ikerketa mota hori bere programan sartu du eta Saiak elkarteak Euskal herrian horren gauzatzeko ardura du.

Lo egiteko tokien kokaleku geografikoa, habia hurbil duten bikoteen arabera

Lo egiteko toki baten edo bestearen eta habia hurbilen duen bikotearen egonlekuaren arteko distantzia aldatu da denboran zehar. 2000ko urteen hastapenean, lehen lo egiteko tokitik hurbileneke habia 8 km-tan zen. Orain, distantzia hori 14 km-raino luzatu da. Habia duten bikote gehienak bi lo egiteko tokietatik 20 bat km-ko inguruan dira. Zuberoako bikoteak lo egiteko tokietatik 40 km baino gehiagotan dira.

Un P8E eratzuna duen sai zuri bat argazkitan hartua izan da lehen lo egiteko tokian, 2020ko martxoaren 11n. Nafarroako 1A gunean du habia, lo egiteko toki hartarik 18 km-tan, 2017az gerotz. Eratzuna habian ezarri zioten, 2011n, Ossauko ibarrean (6A), espezieari eratzunak ezartzeko Frantziako programaren barnean (E. Kobierzycki). Hura han izateak erakusten du habia eskualdean duten saiak lo egiteko tokietan ibiltzen direla, bederen parekatu aitzineko migrazioetik heltzean.



Argazkia: Alain Pagoaga

Espeziearen kontrako testuinguruan, Euskal Herriko lo egiteko tokien zaintza beharrezkoa da eta sai zuriaren zaintza ardura berezia ematen dio Euskal Herriari. Zaintza horrek berekin ekartzen du pausatzeko erabiltzen diren arbolak atxikitzea (kontrolatugabeko su batzuek mehatxatzen ahal baitituzte) eta jendearen jarduerak ekarri traben mugatzea (helikopteroak goratasun apalean pasatzea, abereak argazkitan hartzea...).

Euskal Herriko lo egiteko bi tokien atxikitze desafio nagusiak

Habiak egiteko lekuak ez dira espezie horrentzat garrantzia handia duten leku bakarrak. Lo egiteko tokiak ere garrantzi handikoak dira harrapari horrentzat. Espainiako zientzialari batzuek igorgailuz hornitu sai zuri batzuen joan-jinak ikertu dituzte, eta ohartu dira 165 km baino gehiagora sortu sai heldu ez ugaltzaile batzuek eta 25 km-tatik heldu ziren sai heldu ugaltzaile batzuek lo egiteko toki horiek bisitatzen zituztela.

Eraztuna zuten sai zuri batzuk ikusiak izan dira Euskal Herriko lo egiteko tokietarik batean; alta, eraztuna daukaten hegazti gehien-gehienak ez dira Euskal Herritik heldu.

Maiatzetik goiti, heldugabeak helduekin elkartzen dira lo egiteko tokietan, kopuru handienak uztailean eta agorrilean kontaturik. Gazteak ere ikusiak izan dira agorrilean eta irailean.

Beraz, lo egiteko tokiak zinez garrantzi handikoak dira espeziearentzat: habiak inguruetan dituzten bikoteentzat, gazteentzat eta ugaltzaile ez diren saientzat.

Orduan, lo egiteko tokietarik hurbil diren energia alorreko azpiegitura proiektuen ondorioek ez dituzte bakarrik habiak dauden leku bakar bateko ugaltzaileak hunkitzen, baina baita sai ugaltzaile eta ez ugaltzaileen populazioaren zati ez ttipi bat, aldi berean espezie migratzaile horretako heldugabeen eta gazteen sakabanatzea ekarriz.



Argazkia: Isabelle Rebours

Sai zurien lo egiteko tokiak munduan barna...

Badakigu Espainian eta Euskal Herrian izaera taldekoa dutela ugalketa garaian, baina lo egiteko tokietan biltzeko joera hori Marokon, Etiopian eta espeziea oraino nasaia den leku guzietan ere ezaguna da, hala nola Sokotrako uhartean.

Marokon, non 48 sai zuri kontatu baitira, 3 lekutan, 2016an.

Etiopian, non jokabide hori ehunka sai biltzen dituzten lo egiteko tokietan seinalatua izan baita!

Sokotran, non 341 sai kontatuak izan baitira Hadibu izeneko hiri handiengan, 2008ko urrian ■

Gehiago jakiteko...

Bibliografia

. Amezian M. & El Khamlichi R. (2016). Significant population of Egyptian Vulture *Neophron percnopterus* found in Morocco. *Ostrich* 87 : 73-76.
DOI : [10.2989/00306525.2015.1089334](https://doi.org/10.2989/00306525.2015.1089334)

. Arkumarev V. & al. (2014). Congregations of wintering Egyptian Vultures *Neophron percnopterus* in Afar, Ethiopia: present status and implications for conservation. *Ostrich* 85 (2) : 139-145

. Clouet M., Rebours I., Gonzalez L., Kobierzycki E. & Etchebame J.-B. (2014). Observation des dortoirs de vautours percnoptères *Neophron percnopterus* au Pays Basque au cours de l'année 2013. *Alauda* 82 : 27-30

. Donazar J.A., Ceballos O. & Tella J.L. (1996). Communal roosts of Egyptian vultures *Neophron percnopterus* : dynamics and implications for the species conservation. *Monografias*, n°4 SEO, Madrid.

. Kobierzycki E. (2003-2018). Le Vautour percnoptère (*Neophron percnopterus*) dans les Pyrénées françaises. *Bilans du suivi de la population Coordination Réseau Percnoptère Pyrénées*. (Doc. internes non publiés).

. Margalida A. & Boude J. (2003). Dynamics and Temporal Variation in Age Structure at a Communal Roost of Egyptian vultures (*Neophron percnopterus*) in Northeastern Spain. *J. Rapt. Research* 37 : 252-256.

. Marguerat D. (2002). Evolution d'un dortoir de Vautour percnoptère (*Neophron percnopterus*) situé sur le versant nord des Pyrénées. *Le Coubageot*, Hors-Série n° 1.

. Porter R.F. & Suleiman A.S. (2012). The Egyptian Vulture *Neophron percnopterus* on Socotra, Yemen: population, ecology, conservation and ethno-ornithology. *Sandgrouse* 34: 44-62.

. Toutain Y. (2006). Suivi d'un dortoir de Vautours Percnoptères sur la façade nord des Pyrénées. Rapport stage BTA. Session 2003-2005. LPO Délégation Aquitaine - Saiak.

Loturak

. Réseau percnoptère Pyrénées egituraren urteroko sintesiak, 2002tik 2015era:

<http://www.pourdespyreneesvivantes.fr/pages.php?F2=2&F3=4&page=8>

. Sai zuriei (*Neophron percnopterus*) eraztunak ezartzeko – Telemetro bidez segitzeko programaren bilana, Frantzia, 2018 :

<http://www.naturemp.org/IMG/pdf/-233.pdf>

. Donázar & al. artikulua:

https://www.researchgate.net/profile/Jose_Donazar/publication/259654186_Communal_roosts_of_Egyptian_Vultures_Neophron_percnopterus_Dynamics_and_implications_for_the_species_conservation/links/00b4952e0cf9bc9eb9000000.pdf

. Margalida artikulua:

<https://digital.csic.es/bitstream/10261/179025/1/dynamicsNSpain.pdf>

. Lo egiteko tokiak Marokon:

<http://www.maornitho.org/2015/12/egyptian-vulture-population/>



Argazkia: Michel Clouet